

PERTSONA EGOKIA AUKERATZEA**Jarduera honekin hau landuko dugu:**

Gizonei eta emakumeei buruzko estereotipoak.
Genero-iritzi eta -estereotipoekiko pentsamendu kritikoa.
Zein izan behar den gure rola genero-estereotipoak mantentzean eta hedatzean.

5. GJHa

Iraupena

Saio bat.

Kontuak hartu beharrekoak

Gizonek eta emakumeek gizartean dituzten rolak oso lotuta daude genero-estereotipoekin.

Besteei buruz ditugun pertzepzioak zenbait prozesu kognitiboren emaitza dira, eta, askotan, estereotipoek baldintzatzen dituzte pertzepzio horiek. Inguratzen gaituen errealitate soziala hautemateko, taldeak eratzen ditugu, desberdintasunak markatzen ditugu eta kolektibo bakoitzari ezaugarriak esleitzen dizkiogu. Estereotipoen bidez, pertsonak taldearen ezaugarrien arabera sailkatzen ditugu. Ildo horretan, estereotipoak positiboak dira, inguratzen gaituen errealitate konplexuaren kaosa antolatzen duten neurrian, eta negatiboak, berriz, gureaz bestelako taldeetako pertsonengandik jasotzen dugun informazioa alboratzen eta mugatzen duten heinean.

Ematen dugun balorazioaren arabera, estereotipoak positiboak, negatiboak edo neutroak izan daitezke. Adibidez:

Positiboa: Emakumeak sentiberak dira.

Negatiboa: Emakumeak kuxkuxeroak dira.

Neutroa: Andaluziako emakumeak beltzaranak dira.

Jarduera honetan, genero-estereotipoak lantzen dira, eta hautatu dituzten aukerak ondo arrazoituta defendatu behar dituztenez, aukera horietako askok oinarri logikorik ez dutela ohartuko dira. Egia esan, ondorio hau atera behar da: garrantzitsuena da pertsonak lanpostu baterako egokiak izatea, sexua edozein dela ere.

Garapena

Eranskineko taula proiektatzea edo ematea, hau azalduz:

"Giza baliabideetako enpresa bateko arduradunak zarete. Hainbat lanpostutarako egokiak diren zenbait pertsona iritsi dira (curriculumaren arabera hautatuak izan dira). Orain, behin betikoak aukeratu behar dituzue, lanpostu-kopuru bera (bost) esleitzuz gizonei eta emakumeei. Hau da, bost gizoni eta bost emakumeri esleitzea lanpostuak".

Horren ondoren, egin taldeak. Taldetan, bateratu egin beharko dute lanpostuak esleitzeko hartutako erabakia. Taldearen barruan, esleitutako lanpostuen behin betiko zerrenda adostu behar dute. Pertsona bakoitzak bere aukera defendatzeko arrazoiak eman behar ditu.

Taldeari aukera bat hautatzeko eskatuko zaio. Erabakia hartzera bultzatzen zaituzteten arrazoiak argudiatu behar dituzue.

Egin gogoeta

Talde guztiek amaitzen dutenean, banan-banan eskatuko zaie egindako lanari buruzko galderak erantzuteko:

- Oro har, bat etorri al zarete lanen esleipenean?
- Zaila egin al zaizue adostasuna lortzea?
- Azkar esleitu al duzue posturen bat? Zein? Zergatik?
- Kostatu al zaizue horietakoren bat esleitzea? Zein? Zergatik?
- Jardueran planteatu duzuenaz gain, egon al da bestelako jarrerarik taldearen barruan?

Talde guztiek hitz egin ondoren, egin gogoeta honelako galderetatik abiatuta:

- Logikoa iruditzen al zaizue lanpostuak sexuaren arabera esleitzea?
- Ezagutzen al duzue normalean sexuarekin lotzen ez diren zereginak egiten dituzten emakumeen adibiderik? Eta gizonenak?
- Ba al dakizue zer den estereotipo bat? (Azaldu, beharrezkoa bada, estereotipoaren kontzeptua)
- Neska-mutilen estereotipoak kontuan hartuta erantzun duzuela uste al duzue?
- Zuen ustez, pertsona gisa heltzen laguntzen al dizue estereotipoak ezabatzeak? Zertan?
- Zer ikasi dugu jarduera honekin?

1. taula

Nor jarriko dugu...?	Gizona	Emakumea
- Ingeniaritzako sail bat zuzentzen. - Dekorazio-enpresa txiki bat zuzentzen. - Arrisku handiko dokumental bat grabatzen. - Ibai batean kanoako abentura baten buru izaten. - Gazteen abesbatza bat zuzentzen. - Adinekoei laguntzen lan egingo duen boluntario-talde bat koordinatzen. - Futbol-talde bat prestatzen. - Arratsalde batean haur txikiak zaintzen. - Jatetxe on bateko sukaldea zuzentzen. - Haurrentzako udalekuetako sukaldea zuzentzen.		

Nor jarriko dugu...?	Gizona	Emakumea
- Ingeniaritzako sail bat zuzentzen. - Dekorazio-enpresa txiki bat zuzentzen. - Arrisku handiko dokumental bat grabatzen. - Ibai batean kanoako abentura baten buru izaten. - Gazteen abesbatza bat zuzentzen. - Adinekoei laguntzen lan egingo duen boluntario-talde bat koordinatzen. - Futbol-talde bat prestatzen. - Arratsalde batean haur txikiak zaintzen. - Jatetxe on bateko sukaldea zuzentzen. - Haurrentzako udalekuetako sukaldea zuzentzen.		

Nor jarriko dugu...?	Gizona	Emakumea
- Ingeniaritzako sail bat zuzentzen. - Dekorazio-enpresa txiki bat zuzentzen. - Arrisku handiko dokumental bat grabatzen. - Ibai batean kanoako abentura baten buru izaten. - Gazteen abesbatza bat zuzentzen. - Adinekoei laguntzen lan egingo duen boluntario-talde bat koordinatzen. - Futbol-talde bat prestatzen. - Arratsalde batean haur txikiak zaintzen. - Jatetxe on bateko sukaldea zuzentzen. - Haurrentzako udalekuetako sukaldea zuzentzen.		

GENERO GARAPENAREN INDIZEA

Jarduera honekin hau landuko dugu:

Genero Garapenaren Indizea (GeGI) kontzeptua, eta Giza Garapenaren Indizearekin (GGI) duen lotura.

Genero-desberdintasunekiko pentsamendu kritikoa.

5. GJHa

Iraupena

Saio bat.

Materiala

Genero Garapenaren Indizea infografia ([esteka](#))

Garapena

Ikasgelan *Genero Garapenaren Indizea* izeneko infografia proiektatuko da, bertan agertzen diren kontzeptuak komentatzeko eta ikasleekin horri buruz hitz egiteko, bertan agertzen diren galderen laguntzaz; dena den, ondoren ere erreproduzituta daude galderak.

Herrialdeen sailkapena, Genero Garapenaren Indizearen arabera

Genero Garapenaren Indizea kontzeptua, esan dugunez, oso lotuta dago Giza Garapenaren Indizearekin.

- Mapak alderatzean, harreman hori ikus dezakezu?
- Zure ustez, emakumeak diskriminatuta egoteak izan al dezake eragina herrialde horien giza garapenean? Nola? Hona hemen, laguntza gisa, adibide bat: neskek hezkuntza jasotzeko pairatzen duten diskriminazioaren ondorioz, GGian alfabetatze-tasak jaitsi egiten dira.
- Konturatzen al zara Genero Garapenaren Indize handiena duten herrialdeak, oro har, bat datozela Giza Garapenaren Indize handia duten herrialdeekin? Zergatik uste duzu gertatzen dela hori?
- Zure ustez, nola eragiten du herrialde batean emakumeen garapenak, Giza Garapenaren Indizea handiagoa izateko?
- Zure ustez, zer egin beharko litzateke, zer aldatu beharko litzateke, egoera hori konpontzen saiatzeko? Adibidez, nola hobetu daiteke neskek eta emakumeek hezkuntzarako sarbidea izatea?

Emakumeen zer ehuneko bizi da GeGIaren arabera herrialde-multzo bakoitzean?

Orrialde honetan ikus dezakegu emakumeen guztizko kopuruaren zer ehuneko bizi den Genero Garapenaren Indizearen arabera herrialde-multzo bakoitzean.

- Emakumeen % 40 Genero Garapenaren Indizea txikia edo ertain-txikia den herrialdeetan bizi da. Zer pentsarazten dizu horrek?
- Zure ustez, bidegabekeria al da emakumeek diskriminazio-maila hori jasaten jarraitzea? Zergatik?

Genero Garapenaren Indizearen hiru osagaien alderaketa, herrialde-multzoen arabera

- Ohartu al zara Genero Garapenaren Indizea zenbat eta txikiagoa izan orduan eta alde handiagoa dagoela emakumeen eta gizonen BPGaren artean? Zenbat aldiz da gizonezkoen BPGa handiagoa bost herrialde-multzoetan?
- Emakumeek, oro har, gizonek baino urte gehiago bizitzeko joera dute genetikaz, hau da, bizi-itxaropen handiagoa dute. Ikusi zer gertatzen den bizi-itxaropenaren zifretan infografia honetan.
- Genero Garapenaren Indizea txikitu ahala, txikituz doa emakumeen eta gizonen bizi-itxaropenen arteko aldea ere, alde hori desagertzeraino. Zure ustez, zergatik gertatzen da hori? Saiatu aztertzen zergatik ote den hori horrela. Gako bat: bizi-itxaropena elikaduraren edo osasun-arretaren arabera da, besteak beste.
- Genero Garapenaren Indize handieneko herrialdeetan, ia ez dago alderik gizonen eta emakumeen eskolatzeko-urteen itxaropenean; hala ere, indize hori zenbat eta txikiagoa izan, bi zifren arteko aldea orduan eta handiagoa da. Zure ustez, zergatik da horrela?
- Taula aztertu ondoren, zer egin zaizu deigarrien?
- Zer egin daiteke zifra horiek hobetzeko?